

Joanes Etxebarria Gotaine


Etxalde elkartearen ideia orokorra argia bada ere, gutieneko hiztegi juridikoa behar da beren aurkezpen testuak ulertzeko. Elkar-teak etxebizitzak erosi eta boluntarioekin berritzea proposatzen du, jabegoa bere esku atxikiz eta egoiliarrei –sari baten truk– gozamina emanaz. Aurkezpen anitz egiten ditu Beñat Etxebestek oraino plantan ezarri ez duten kontzeptua esplikatzen; bi erai-kin erosi dituzte Maulen, baina maileguak pagatu ondotik hasiko dira sistema plantan ezartzen.

«Teilatu bat denentzat» dio Etxalde elkarteak. Zu etxe saltzailea izan zara luzaz.

Etxe saltzen eta kudeatzen erauntsi dut hemezortzi urtez, ikusten bainuen Zuberoan bazela zerbait egiteko lan hori egitez. Eginahala egin dut –etxeak ez ziren nireak– auzoko jendeek saltzeko edo alokatzeko, baina erosleak ez ziren beti auzokoak. Saltzean bazen orotarik: badira egoera konplikatuak, luzaz hutsik egon diren etxeak, eta auzoko jendeek erosten zituzten edo kanpokoek. Bazen, halere, diferentzia bat, pixka bat karikatura eginez: Mauleko etxe zahar bat joanen zen lekuko jendearengana, baina etxe zahar bat baztertua zena, ez –eskolara edo lanera joateko harat– honat anitz baitzen egiteko. Orduan, halako etxe anitz joan dira kanpotik heldu ziren jende batzuentzat, zenbaitzuk integratu direnak eta beste zenbaitzuk ez. Kanpotik horra ziren horietan esplikatzen izan ditut guretako interesgarri zirenak eta beste batzuk ez, hemengoetan bezala. Etxebizitza agente izatea Maulen edo Kanbon eta kostaldean ez da batere ber gauza: gutieneko soldata bera da han eta hemen, baina etxeen prezioak ez dira berak. Hori da diferentzia alimalea; hemen etxeak erosten ahal dituzte jendeek.

Etxebizitzen arazoak eztabaida gogorak piztu izan ditu, eta etxebizitza agenteak hobendunetan ezarriak zineten.

Ofizioaz ez dut ikusmoldea kanbiatu. Hasi nintzelarik, banuen duda bizitzekoa ukanen nuenetz, eta segidan bizitzekoa eman zidan. Higiezinak interesatu naute urte luzez; GFA Lurra sortu zelarik, 16 bat urterekin, parte bat erosi genuen lau herritarren artean, eta enetako arrangura bat zen. Gero, sozialean lan egin nuen, eta hor berriz ikusi nuen helbide baten inportantzia jendeendako.



«Kulturan sartu behar dugu kolektiboki eroste hori»

Beñat Etxebest • Etxalde elkarteak presidentea

Etxebizitza agentea zelarik, jadanik aipatzen zuen etxeak kolektiboki eroste aterabide bat zela bere ustez. Gaur egun, Etxalde elkartearekin, ideia hori defendatzen du, «teknikoki» nola egin daitekeen ikerturik.

Agente izatea plazer bat izan da, ikusi dudalako jendeekin harreman oso goxoak nituela, jendeek etxe bat saltzean beren bizia kontatzen baitute. Bestalde, gogorra izan da. Entzun dut erraten «higiegatik auzoko jendea ez duk hemen ohatzen ahal»; argumentu anitz horra ziren kostaldeko arranguretarik, baina hemen badugu etxebizitza anitz hutsik: ez da bizileku problema; ez da sos problema. Kultur problema da: nola jiten da jendea kanpotik, onartzen dugu edo ez? Baina gu nor gara? Gu gara saltzaileak. Ukan ditut ene bezero izan eta gero ene kontra agertu direnak. Karikatura bat emanen dut –zenbaitentzat ez dena–, baina entzutea «kapitalaren zerbitzuko» naizela... Bai, eta? Hutsune ho-

rrek, isiltasun horrek behar du sortu arrapostu bat. Oraingotu behar ditugu gauza batzuk. Ene kontra ziren batzuk enegana jin izan dira esplikatzen gero etxea saldu zutela... Aski gogor izan da gauza. Zergatik etxebizitza agenteak atakutzen dira? Guk ez dugu merkatua egiten; artekariak gara. **Jabego pribatua zepo bat dela diozu. Etxe saltzailearen ofizioa maitatu duen norbaiten ahotik hori entzutea harrigarria da.**

Banekien laborari etxaldean alde juridikoa nolakoa den eta nola bizitzen den Zuberoan. Etxebizitza agente bilakatu nintzen ez hautuz; egin nuen eskaini zidatelako. Erosi nuen agentzia, eta hasi. Batzuk zinez motibatuak dira saltzeko, eta beste batzuek zinez min egiten die saltzeak. Ez banu agen-

te lana egin, ez nakike egun esplikatzen zerendako behar den Etxalde. Agitu zait eztabaida batean notario bati esplikatzea ere. Zerendako Euskal Herriko laborantza tipia da, baina pilotan ari dira, eta hurrez okupatzen, eta zerendako Britainiako laborariak zorrez itoak dira, eta bortxatuak industria batean sartzera eta bazterrak kutsatzera, hemen hein horretan egiten ez dena? Diferentzia da hemen ez dutela etxaldea erosi beharrik, eta ez da berena: beren familiarena da. Notarioek izugarri ontsa lan egiten dute euskal etxaldean iganarazteko belaunaldiz belaunaldi, hurrek pagatu gabe, eta oro legalki egiten da. Barnetik da bizitzen, ikasten, konprenitzen... Bizi gara sistema batean ez duguna ikusten.

Etxalderen ideia da kolektiboki eroste norberak kudeatzeko. Baina higiezin merkatuan sartuz?

Erraten digute eroste merkatuan sartzea dela, ez baitugu beste sistemarik atzeman! Behar da soluzio bat eraiki, eta politika jinen da soluzio bat eraikirik izanen delarik amfiri bat. Jendeek ez dutelarik beharrik ukanen haboro ez dakit zer adituk edo juristak beren bizilekua babesteko. Jakinen dutelarik berek egiten, norberaren boterea berreskuratzen, jendeak formatuak izanen direlarik, ez dute nehorren beharrik ukanen. Hori da proiektu politikoa.

Diozu alokairuan direnak geroz eta pobreako direla. Zergatik interesgarriago izanen da Etxalde elkarteak etxebizitza batean gozamen izatea?

Apartamentu alokairuan ukaitea ere batzuentzat ez baita posible izanen. Erotea ere finitzen ari den amets bat da; kostaldean, gazteek gaurko prezioetan erosten dute, baina 350.000 euro apartamentu batentzat 30 urtez pagatzea... Hori ere laster ez da posible izanen. Haien hurrek ez dute aski sosik ukanen eroste.

Etxaldek bai, kolektiboki erosten ahal du prezio goretan?

Orain erosten badugu zerbait 30 urteren buruan mailegua pagatua izanen delarik, eremu horrek emanen du auzoko etxea eroste dirua. Gaur egun zer egiten da: alokairuan direnak jabeen menpeko estatus batean dira, eta pobreak direnez laguntzak ematen zaizkie... Behar da aski umil izan ez hunkirik izateko, baina noiz mintzatuko zara karrikan etxejabearen hein berean? Sekula. Aldiz, gozamen izatean, ez dut etxea erosten ahal, baina ene auzo ere ez. Kostaldeko prezioak eginak baitira kanpotik jin norbaiten errebenioetarik, eta Parisetik heldu direnak ez dira pobreenak. Etxaldek zer emanen du? Biarritzen etxe baten gozamen izatea, adibidez, eta hurrei etxearen segida uztea.

Baina oraingoz bi eraikin balizik ez dituzue, biak Maulen.

Bai, sosa behar baita, eta sosa jinen da jendeetarik, konprenitu ondoan egiten ahal dugula. Hor hasiko dira egiten. Etxaldek ez du ahala eroste. Kulturan sartu behar dugu kolektiboki eroste hori. Gure gain da oro: ez dugu hizkuntza defendatuko adibidez ez badugu lurra arra biltzen, arra erosten. Egiten ahal duguna izugarri tipia da, baina biltzarretan gogoak plizten dira emendatzeko.